

Noaia !!



Apirilaren 7an Sutegin
arituko da Anari kantaria



Ametza Larrañaga, Milorri enpresa berriko kidea
"Natura errespetatuz
zainduko ditugu lorategiak"

ERRETEGIA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA



Egunero irekia.
arratzain@telefonica.net

Arratzain Zahar Baserria • Telf: 943 36 66 63 • 20170 USURBIL

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862

OSASUN GIDA

FARMAZIAK

ISIDORO ITURRALDE

Homeopatia
Formulación magistral

Burdia, 3er. 1. ☎ 943 36 33 95

ODONTOLOGIA



Odontologa
Dra. M^a Jesús Rubio Muñoz

Erizkara, 1er. 1 - 1.º Et. USURBIL
☎ 943 36 18 55

MASAJISTAK

UMA
masaje lekua

Lepoko eta bizkarreko minak
Kirol eta oinetako masajea

K/ nagusia, 10-atekaldea
☎ 659 043 486

LOGOPEDAK

LOGOPEDA-PEDAGOGA

• Ulermen arazoak.
• Ahozkatzeko zailtasunak: Dislaliak, "rr".
• Afoniak- Disfoniak. • Dislexia, Disglasia...
• Degluzio atipikoa.

Konsultaren ordua eskatzeko, deitu:
☎ 635 70 13 74

Txirrikitutik !

Hainbat herritarrek bultzaturik, Usurbilgo herri aldizkariaren proiektua aurrera ateratzeko lan handia egin zen eta dudarik gabe bilera asko. Gai asko zeuden lantzeko, horien artean herri aldizkariak izango zuen izenarena. Horretarako auzoko tabernetan zerrendak jarri ziren herritarren proposamenak jasotzeko. Denetarik jaso zen, hona adibide batzuk: *Berritxurbil, Kupela, Herriaren ahotsa, Hika-mika, Uaska, Muxala, Inurkiña, Usurbilgo alkatearen..., Learritz, Bota pinuee, Herri-berri, Majera, Turrurutukutu, Xalero, Urbil, Baldeu!, Naikuai!, Hieup!, Hitzekin, Esanda-bezala, Bidetxur, Diyo, Ahopeka, Eamangoaue, Markesaneke pretila, Naitaezin, Noaua!, Koapillo, Albarka, Pitarra, Kontuba ugari, Herriko balkona, Santixabel, Etxiok!, Tolare, Txixardina, Itturri, Andatza, Usurbilgo Euskal Aldizkaria, Usurbiltarra, Belmount, Gazi-gozo-geza, Zizabila, Dayola, Banitxiek, Hitzurbil, Ttankatteko,....*

Guztira, 675 izen jaso ziren eta bazterketak egin ondoren 16 geratu ziren. Botaketa egin ondoren Noaua! izena aukeratu zen.

Argazkian ageri den arropa dendak berriz, izena jartzeko horrelako prozedura berdina egingo ote zuen? Auskalo! Noaua!ko bazkide batek utzi didan argazkia Beasaingo herrian aterata dago, bertako arropa denda batek gure aldizkariaren izen bera duela ikusteko: Noa Huaa!! Bitxia ezta?

Zalao Arnaiz Iburguren



Argazkia: P. A., 2006, Beasain

Noaua !

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

AMETZA LARRAÑAGAREKIN SOLASEAN **5. OR.**

AHO GARBIKETARI BURUZKO ANALISIA **6. OR.**

APIRILAREN 7AN, ANARI SUTEGIN **8. OR.**

Anarik azaroan plazaratu zuen bere hirugarren diskoa, "Zebra" izeneko. Apirilaren 7an Sutegin izango da zuzenean gaueko 22:30etik aurrera.



FELIX AIZPURUA LITERATURA LEHIAKETA **10. OR.**

KARRA ELEJALDEREN ANTZEZLAN BERRIA **11. OR.**

SU-ETENARI BURUZKO ADIERAZPENAK **12. OR.**

LH 5. MAILAKOAK, ADARRAN **14. OR.**

JOKIN IARTZA TXIRRINDULARI GAZTEA **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea!



AINHOA AZPIROZ

3600 segundo

Goizero bezala, etxetik irten eta Laurokera sartu naiz egunkaria hartzera. "Hara, gaur Patxi dago Julianen partez. Aiiiiii.... ederki izurratuko zion goizago jaikitzeak honi ere. Izan ere, aita dagoenean beranduago etortzen da eta nik ez dut ikusten normalean".

Handik atera eta autobus geltokira abiatu naiz. "Enel, ez dago betiko jendea, egunero topatzen dudana. Ikasleak oporretan ez daude ba. Eta Donostian ere ez da jai eguna gaur. Grebarik ere ez... Bidea ez dago itxita, kotxeak badabiltza eta". Pentsamendu horiekin bueltaka nenbilela, autobusa etorri da. Beraz, barrura.

Lanera iritsi eta atea irekitzen hasi naizenean konturatu naiz bazela barruan beste norbait. "Jesus! Normalean ni etortzen naiz aurren!". Barruraino sartu eta bi lankide han, lanean hasita. "Gaur goiz etorri dira hauek" pentsatu dut. Baina ez naiz ezer komentatzen hasi. Asteburuko kontuetaz hizketan hasi gara eta gero bilera egin dugu.

Eguna normal antzekoa izan da: telefono dei batzuk elkarrizketen hitzorduak jartzeko, artikulua bat bukatu...

Lanetik etxerako buelta "bost gutxitako" trenean egin dut, eta etxerakoan ikastolako haurrak ateratzen ikusi ditut. "Gaur goiz atera dira hauek" pentsatu dut.

"Ordubete lehenago!". Normalean kalea isilik eta lasai egoten da, eta gaur bada mugimendua eta zalaparta.

Seiak bost gutxitan irratia piztu dut. Bost minutu falta dira gogokoen dudan irratsaioa hasteko. "Iritsi gara gaurko saioaren amaierara. Espero dugu gustura egongo zinetela gaurko elkarrizketa interesgarriarekin. Horrenbestez, orain zazpietako albistegiekin utziko zaituztegu. Bihar arte!". Nola? Saioa bukatu dela? Zazpietako albistegiak direla orain? Zer dio horrek? Irratiari begira gelditu naiz. Albistegien aurretik zazpiak direla esan dute. Eta ondoren, ez da ni zain nengoen irratsaioa hasi! Sukaldeko ordulariari begiratu diot, eta han 18:00ak.

Zer pentsatu ez nekiela atera naiz erosketak egitera eta farmaziko erlojuan 19:13. Ez da posible! Berriz etxera igo eta sukaldeko erlojuan 18:14. Erotzen hasi ote naiz? Begirada NOAUA!ko egutegira joan zait eta... ai ama! Ordu aldaketa! Ta ni oraindik ordua aldatu gabe! Orain ulertu dut Lauroken Patxi ikusi izana, autobus geltokian betiko jendea ez egotea, lankideak han egotea, ikastolako haurrak...

Behin Xelebre ere han joan omen zen mezatara beste guztiak ateratzen ari zirenean. Gaur, ordea, ni ibili naiz xelebre.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



ITURGINTZA

JOSEBA
ARANGUREN

☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

DJ LARRA
-ezkontzak
-festak...
Tel. 615 713 204

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

LAUKOTE
ORINDEGIA/
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80

Ametza Larrañaga, Milorri enpresa berriko kidea

“Apirilean hasiko gara lorezaintza ekologikoa eskaintzen”

Ametza Larrañaga eta Ekleylson Marquesek lorezaintzaren inguruko ikuspegi berria ekarri dute Usurbila. Konposta, metodo biologikoak eta landareak erabiliz lorezaintza ekologikoari ekin diote. Helburuak, bezeroari erosotasuna eskaini eta naturaren oreka ziurtatu.

NOAUA! Zertan oinarritzen da lorezaintza ekologikoa?

Ametza Larrañaga. Lorezaintza ekologikoa ingurugiroa errespetatu, bizitzarentzat osasuntsuak diren espazioak eskaini, luraren emankortasuna indartu eta landare eta izaki bizidunen arteko oreka mantentzen edota berreskuratzen dituen lorezaintza da.

Bere funtsa naturarekin lan egitean datza, eta ez bere aurka; lorategi eta etxeko materia organikoa birziklatuz –konposta eginez–, gaixotasun eta izurrien aurka pestizidak erabili beharrean metodo biologikoak erabiliz, uraren kontsumoa gutxituz eta lekuan lekuko edo egokitutako landareak erabiliz, besteak beste.

LOREZAINZA EKOLOGIKOA

“Ingalaterran aspalditik egiten da hau, elkarteak eta guzti daude”

N. Noiz eta zergatik ekin zenioten egitasmo berri honi?

A. L. Enpresa moduan apirilean hasiko gara lorezaintza ekologikoa eskaintzen. Arlo desberdinetan baina urteak daramatzagu lorezaintza eta nekazaritzarekin zerikusia duten lanak egiten. Ekologikoa izatearena, berriz, ingurugiroari diogun errespetuagatik eta baita Europar Batasunetik garapen iraunkorraren inguruan hartzen ari



MILORRI ENPRESAREN ESKAINTZA AITZINDARIA DA EUSKAL HERRIAN.

diren joerak bultzatuta egin dugu. Nik, gainera, lorezaintza ekologikoaren gaineko ikastaro bat eginga dut.

Gizarteak gero eta gehiago eskatzen ditu barazki eta produktu ekologikoak eta lorategietan ere produktu hauek indarrez ari dira sartzen. Jendeak gustuko ditu. Teknika aldetik berriz, askotan tradizionalak erabiltzean datza; udazkenean eroritako hostoekin egingadako konposta, simaurra, landareen ezagutzak bata edo bestea sendatzeko, babesteko... Esaterako, “tajete”ek ahalmen nematizida dute eta honez gain pulgoiaren depredadorea erakartzen dute.

Beste adibide bat hirusta gorria izan daiteke. Landare honek nitrogenoa finkatzen du; belardi berdeak edukitzeko oinarritzko elementua dena. Landare urak ere erabil daitezke funtzio hauek egiteko, esaterako, osin ura prebentibo moduan edo hostoetako ongarri moduan ere erabil daiteke.

N. Inguruan ba al da horrelako esperientziarik?

A. L. Bai, hemen gertu, esaterako, Noaingo udaletxean. Urte batzuk

daramatzate lorezaintza ekologikoa egiten; bai mantenu eta baita diseinu aldetik eta emaitza oso onekin gainera. Madrilen ere bada enpresa bat lorezaintza ekologikoa egiten duena eta zer esanik ez atzerrian. Ingalaterran, esaterako, aspalditik egiten da hau, elkarteak eta guzti daude lorezain eta partikularrak elkartzen direnak. Baita lorategi ekologiko pribatuak bisitatzeko aukera ere!

N. Zein da guzti honen helburua?

A. L. Milorri gure helburua bezeroak bere lorategiaz gozatzea da, honen esklabo izan gabe. Bertan bere txokoa aurkitu dezala eta lortzen dituen sentazio eta beharren berri guri jakinaraztea nahi dugu. Honetarako guk lorategiak natura errespetatuz mantenduko ditugu, ezagutza zientifiko berrienak tradizionalekin uztartuz. Azken finean, denon artean gune atsegin bat izatea lortuko dugu, non naturak bere dinamika jarraituko duen, bere oreka, ekologia.

Antonio Bernal Usurbilgo Hortz Klinikako dentista “Garbiketa arloan utzikeria handia dago oraindik”

Hortzak zaintzea uste baino garrantzitsuagoa da. Ohitura hobek hartzen hasi bagara ere, oraindik asko dugu ikasteko. Hala uste dute herriko espezialistek. Elikadura zaindu, ondo garbitu eta dentista urtean behin bisitatzea funtsezkoa dela dio Antonio Bernal odontologoak.

NOAUA! Nolako ohiturak ditugu usurbildarrok, onak?

Antonio Bernal. Erdipurdikoak. Denetik ikusten dugu: utzikeria handia duen jendea dago baina badira ahoa ondo zaintzen dutenak ere. Baina gehienetan ez da ohitura kontua, fisiologia arazoia ere badira. Batzuk srro gehiago, karies gehiago... garatzeko joera dutelako. Hala ere, ohiturak ez dira oso onak.

N. Urteko errebisioa egiteko ohiturarik ba al da?

A. B. Denetik dago. Gure politika azken urteotan abisatzea izaten da, batez ere ikusten dugunean arazoak egon daitezkeela. Beti proposatzen dugu urtean behin edo 6 hilabetetik behin etortzea, agendan apuntatu eta deitu egiten diegu momentua iristean. Batzuk abisatu eta segituan etortzen dira, eta besteek “bai, bai” esan eta atzeratu egiten dute bisita. Baina, tira, guk behintzat ahalegina egiten dugu, gero konplikazio gehiago izaten da eta.

ANTONIO BERNAL

“Lehenengo etxeko lana elikadura zaintzea da, azukre errefinatua ekiditea”

N. Osasun mailan, bilakaerarik nabarmendu al duzu? Jendeak gehiago edo gutxiago zaintzen ditu hortzak?



ORAINDIK UTZIKERIA HANDIA DUEN JENDEA BADELA AITORTU DIGU ANTONIO BERNAL DENTISTAK.

A. B. Orain gehiago, azken urteotan kontzientzia gehiago dago. Baina ni egun osoa nago horretan eta agian oso exijentea naiz. Gainditu juxtua jarriko nuke nik nota bezala, baina egunero horrelako gauzak ikusten ditudalako izango da.

N. Ikastetxeak kontzientziazte-lan handia egiten ari dira orain. Ahalegin hori nabaritu al duzue?

A. B. Nire seme-alaben ikastolan behintzat nabaria da, pentsatzen dut hemen ere horrela izango dela. Nire seme-alaben ikastolan, bazkaldu ondoren ume bakoitzak hortzak garbitzeko badu bere zepiloa. Urtean behin hitzaldi txiki bat eman ohi dut, jolas moduan. Nire garaian, ikastetxeetan ez zegoen horrelakorik. Orain gutxienez zer den osasungarria eta zer den kaltegarria erakusten diete.

N. Jendeak oraindik beldurra al die dentista eta odontologoei?

A. B. Bai, oraindik bai. Normalean lehenengo bisita egin ondoren jendea

lasaitzen da. Ikusten dute momenturik txarrena anestesia ematerakoan izaten dela, eta gu ahalik eta delikatuen izaten saiatzen gara. Normalean lehenengo bisita egin ondoren jendea hurrengorako konfiantza gehiagorekin etortzen da. Baina bai, jendeak oraindik beldurra eta urduritasuna edukitzen du.

N. Azkenik, zer egin behar da aho osasuntsu bat izateko?

A. B. Lehenengo etxeko lana elikadura zaintzea da. Adibidez, azukre errefinatua ekiditea, batez ere umeen artean, gozokiak... Beti barazkiak, frutak eta antzekoak jatea gomendatzen dugu. Bigarren pausua, egunero ko garbiketa. Eta azkenik, dentistarengana joateko ohitura areagotzea. Urtean behin, eta kasu berezietan, beharra dagoenean, sei hilabetetik behin. Harreman biziagoa eduki behar da dentistarekin. Beti buruan izan hor dagoela espezialista bat eta kontuan hartu behar dela.

Presen Rubio, higie-ne arduraduna: "Beldurra edadetuek izan ohi dute, txikitako esperientzia txar batengatik akaso"

M^a Jesus Rubio Muñozen kontsultako higie-ne arduraduna da Presen Rubio. Bere ustez, Usurbilen gehien-goia oso arduratsua da ahoa zaintzerakoan, errebisioa egiteko ohitura izatez gain, etxean egin beharreko garbiketara ondo egiten delako.

NOAUA! Jendeak aho garbiketari garrantzia ematen al dio?

Presen Rubio. Denetik dago baina ezberdintasuna, oro har, adinaren arabera ikusten dugu. Edadetuek ohitura edo heziketarik ez dituzte beharrezko higie-ne ohiturak, hortzak ondo garbitzen ez zaielako erakutsi dator, beraz, arazoa. Gazteenak heziketa bidez hartu dituzte garbiketara ohiturak. Hala ere, edadetuek ere ohitura

hobeak dituzte egun.

N. Jendea oraindik beldurrez hurbiltzen al da zuengana?

P. R. Denetik dago kasu honetan ere. Beldur gehien dutenak edadetuak izaten dira, txikitako esperientzia txarren bat izan dutelako orokorrean. Baina denbora gutxian, dentistak eta beren lan egiteko erak asko aldatu dira, orain kontu handia izaten baita bezeroa ondo sentitu dadin. Ahalik eta erosoan egon daitezten saiatzen gara eta behin konfiantza hartzean lasaia etortzen dira. Portzentaje batek beti du beldurra, baina gehienetan umeak lasai etortzen dira, pediatarrena joatean bezala. Edadetuak izaten dira beldur gehiago dutenak eta txikitako esperientzia txar batengatik, orokorrean.

N. Zer egin behar da aho osasuntsu bat izateko?

P. R. Lehenik eta behin, kontsultara datorrenari irakatsi egin behar zaio ahoa garbitzen, nola egin jakin dezan. Bigarrenik, aldizkako bisitak garrantzitsuak dira, ahoaren arabera, noski. Gehienetan urtean behin edo bitan nahikoa izaten da. Eta azkenik, gehien bat umei dagokienez, elikadura ohitura osasuntsuak izatea. Hobe da fruta eta berdurak jatea gozokiak baino, baina ez daude azken hauek debekatu beharrik. Kontua da azukrea duten janariak jan ondoren, ahoa ondo garbitzea. Horren harira garrantzitsua da orduz kanpo ez jatea, janari hori izaten baita azkenean hortz artean egun osoan eramaten duguna.

Aho-garbiketa modu eta tresna egokiek egin behar da

Gure hortzeria, aurkezpen-txartel garrantzitsua izatez gain, digestio-aparatuaren lehen zatia da. Elikagaien mastekatzeko egokiak, adibidez, urdaileko zenbait arazo saihesten ditu, eta soilik gure atzeko haginak egoera onean badaude egin daitezke. Ahoaren higie-ne desegokiak eragin ditzakeen beste arazo batzuk txantxarra (kariesa), gingibitisa edo infekzioak dira, ahoko patologia ohikoenak, hain zuzen. Eraginokorra izan dadin, aho-garbiketa modu eta tresna egokiek egin behar da. Egunero minutu batzuk horretan baliatuz gero, bizi osorako hortzeria osasungarria eta polita ziurtatzen da.

- Komenigarria da dentistari 3 urtetik aurrera ohikotasunez bisita egitea, izan ere adin horretan osatzen da hor-

retzen erupzio primarioa. Adin horretatik aurrera ohiko kontrolak sei hilabetean behin egin behar dira, edo urtean behin, gutxienez; halaber, ultzerak, txantxarra, hatsa, hortz-oietako odol-jarioa, hortz mugikortasuna, txistu-alterazioa, etab. izaten den guztietan.

KONTUAN HARTZEKOAK

Elikadura orekatua, egunero hortzak ondo garbitzea eta dentistarengana aldiari behin joatea

- Elikadura garrantzia handikoa da ahoarentzat; azukre kariogenikoek (karamelu eta gozokietan daudenak) ahoa kaltetzen dute; barazkiek, aldiz, garbitu eta aho-hortzetako osasuna indartzen dute. Esneak eta esnekiek



HORTZAK ONDO GARBITZEA FUNTSEZKO DA.

kaltzio nahikoa ematen diete hortzei osatzen ari direnean.

- Ez ezazu hortzeria behartu fruitu lehorrak puskatuz, eta saia zaituz edari edo elikagai hotz edo beroegiak ez hartzen.

- Tabakoak kalte egiten dio ahoaren osasunari, izan ere hortzen gaixotasuna okerragotzen laguntzen du.

Anari berri bat ikusiko dugu Sutegin

Apirilaren 7an eskainiko duen jaialdirako sarrerak jada salgai daude

Aurretik eginikoa ez errepi-katzeko bere buruari ezarritako aginduari kasu eginez, aldaketaren bila aritu da Anari hirugarren diskoan, "Zebra" izenarekin bataiatu duen lanean. Aurreko lane-ko dotorezia eta iluntasuna alde batera utzi eta soinu elektriko, lehor eta argiagorekin jantzi ditu bere kant-
tuak. Inoren Ero Ni taldeko Mikel Abregok, Drakek eta Borja Iglesiasek eta Lisaböko Karlos Osinagak lagundu diote abentura berri honetan. Sutegiko emanaldia NOAUA!k antolatatu du Udalaren laguntzaz.

Aldaketa nabaria da Anariren hirugarren lan honetan, bilatutakoa; musikariaren eta bakarlariaren bideak inoiz baino batuago agertu dira. Ahotsa aurrekoetan baino askoz ere errealagoa da, ez hain dramatikoa. Oraingo honetan Inoren Ero Ni taldeko partaideak izan ditu lagun, eta Karlos Osinaga arduratu da lan teknikoaz. Azken horren lana goraiatu zuen Anarik prentsaurrekoan. Hitzei dago-kionez, zailtasun handia izan duela adierazi zuen bakarlari azkoitiarrak, ez baitzekien "ni", "zu", "gu" edo "zu eta ni" figuretatik abiatu. Lan horretan Iñigo Aranbarri idazlearen laguntza jaso du.

Gauzak beste era batera esatea bilatu du lan berri honetan. Hainbat lagun-
nen kolaborazioa jaso du bakarlariak; besteren artean, Hanot eta Gaizkak, Audience taldekoek, Xabier Erkizia



BENTAN, TXIRRISTRAN ETA NOAUA!KO BULEGOAN DAUDE SARRERAK SALGAI.

Berako Ertz mugimenduko kideak, Jabi Amodio egitasmoko kideak eta Rober Atom Rhumbako kantariak hartu dute parte.

Anarik, nahiz eta gehienek euskara ez erabili beren kantuetan.

Sarrerak jada salgai

Jada hainbat jaialdi eskaini ditu eta denetan jende asko bildu da. Sutegiko auditorioa txikitxo denez, Anari zuzenean ikusi nahi duenak garaiz eskuratu beharko du sarrera. Gogoan izan hitzordua, apirilaren 7an ostirala, Sutegiko auditorioan.

"ZEBRA" DISKOA

Sutegi areto txikia denez, Anari zuzenean ikusi nahi duenak garaiz eskuratu beharko du sarrera

Azken horrek diskoa ixten duen "Gu" kantuan kolaboratu du. Guztiak musikalki oso hurbil sentitzen dituen lagunak direla nabarmendu du

Anari, Sutegin

NOIZ: apirilak 7 ostirala, 22:30ean.

SARRERA: Bentan, Txirristran,

NOAUA!n, takilan. Prezioa, 9 euro.

NOAUA!ko bazkideentzat sarrera 6 euro, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arliztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

 pintxoak
ogitartekoak
piatek konbinatuak

TABERNA

Apirilaren 5ean amaituko da argazki digitala zein henna ikastaroetan izena emateko epea

Iazko udaberrian egin zen bezalaxe, honakoan ere NOAUA!k bi ikastaro prestatu ditu. Argazki digitalarena apirilaren 22an hasiko da. Henna ikastaroa, aldiz, maiatzaren 6an. Baina ikasle kopurua mugatua izango denez, izena ematea garaiz egitea komeni da.

Argazki digitalari buruzko ikastaroa antolatzekeo arrazoia bikoitza da: argazki kamara hauen erabilpena nolakoa izan behar duen ezagutarazi eta argazkiaren tratamendua eta aukeak zein diren jakinaraztea.

Bi orduko bi saio izango dira.

Besterik ez. Hori da argazki digitalaren gaineko ikastaroak iraungo duena. Apirilaren 22an lehen saioa; apirilaren 29an bigarrena. Biak, goizeko 11:00etatik 13:00era.

Henna ikastaroa, aldiz, hiru orduko izango da. Maiatzaren 6an egingo da, goizeko 10:00etan hasita.

Ikastaro hauetako batean izena emateko NOAUA!ren egoitzara etorri behar duzu (prezioa ikastaro bakoitzeko, 15 euro). Baina gogoan izan izena emateko epea apirilaren 5ean amaituko dela. Ikasle kopurua mugatua izango da, gehienez 15 lagun.



HENNA IKASTAROA HIRU ORDUKOA IZANGO DA.

Bazkide gutxi NOAUA!ko ohiko Batzar Nagusian

Martxoaren 25ean ospatu zuen NOAUA! Kultur Elkarteak bazkideen ohiko Batzar Nagusia. 2005eko balantzea eta 2006rako egitasmoak landu ziren.

Deialdia aspalditik egina zegoen. Gutun bidez eta aldizkarian iragarri egin bazen ere, batzarrera hurbiltzeko gonbiteak ez zuen arrakasta handia izan.

Bazkide gutxi izan ziren NOAUA!ko egoitzan egin genuen batzarrera hurbildu zirenak. Dena den, hurbildu ezin eta

batzarrean landu genituen txostenak jaso nahi duen bazkide oro egoitzara hurbildu dadila eta eskura izango ditu balantzeak nahiz egitasmoak.

Batzarrean esan bezala, Udalarekin sinatu den lau urteko hitzarmenak sendotasun ekonomikoa emango dio elkarrearen jarduerari.

Kultur eskaintzari dagokionez, NOAUA!ren ekarpena nabarmen ugartu da azken hilabeteetan. Sutegik ekitaldi gehiago antolatzekeo aukera eskaintzen du eta aurrerantzean ere elkarrearen

lan-ildo garrantzitsua izango da.

Argitalpenei dagokionez, astekariaren lehen balantzea egin zen, balantze positiboa. Nabarmenezkoa ere, noaua.com webgunea lortzen ari den oihartzuna. Bisita kopurua hirukoitzu egin da azken urtean. Gainera, 200dik gora dira noaua.com webguneak eskaintzen duen posta-helbidea eskuratu dutenak.

“Usurbilgo baserriak eta baserriarrak” liburua ondo saldu zen 2005ean ere eta aipatzekoa da webgunean atal bisitatuena baserriek eskainiakoa dela.

CNC BIDEZKO MAKINA ERREMINTAREN PRESTATZAILE – PROGRAMATZAILE IKASTAROA



Iraupena: 219 ordu

Hasiera: 2006ko apirilak 27

Amaiera: 2006ko ekainak 16

Ordutegia: 08:00etatik 14:30etara

(LANGABETUEI ZUZENDUA)

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu

943.36.46.00 telefono zenbakira

I.E.F.P.S. USURBIL GLHBI

Etarte Bidea, 9 (Zubieta Auzoa) Usurbil

Usurbildik kanpo bizi direnentzat bidaiak diruz lagunduko dira.



Martxan da Felix Aizpurua V. Literatura Lehiaketa

Lehiaketa honetan parte hartzeko bi bide daude: Udarregi Ikastolako ikasleek lanak ikastolan bertan aurkeztuko dituzte, eta ikastolan ez dabiltzan usurbildarrek Udala Euskara Zerbitzura eraman beharko dituzte lanak. Lanaz gain, eta lanari gratatuta, lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila adierazi beharko dira. Lan bakoitzak egile bakarra izango du eta DBHko ikasleek lana ordenadoren datzia aurkeztuko dute.

Olerkiaren neurria librea izango da, baina prosazko lanek neurri jakinak izan behar dituzte: A taldekoek 1 edo 2 orrialde, B taldekoek gutxienez 2 eta

gehienez 5 orrialde, C taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde, eta D taldekoek gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 9an amaituko da.


Sariei dagokien, talde bakoitzak bere sariak ditu. A taldean lehen hiru sariek 50, 40 eta 30 euro materialetan eta diploma bana.

B taldean lehen hiru sariek 60, 50 eta 40 euro materialetan eta diploma.

C taldean lehen hiru sariek 70, 60 eta 50 euro materialetan eta diploma.

D taldekoek 80, 70 eta 60 euro dirutan eta diploma.

Epaimahaikide izango dira: Luis Aranalde, Xabier Pikabea, Juan Luis Zabala eta Ibon Beristain.



MAIATZAREN 9A ARTE BADA LEHIAKETARAKO LANA IDAZTEKO DENBORA.

Pintura ikastaro berri bat antolatu da

Usurbilgo Udalak, INEMek diruz lagunduta eta Europako Gizarte Fondoak kofinantziaturik, pintura dekoratzailea eta trompe l'oeil ikastaro berri bat antolatu du. Izena emateko epea martxoaren 31n amaituko da. Baina ikastaroa apirilaren 24an hasiko da. FIP deritzon egitasmoaren barruan kokatzen da pintura ikastaro hau eta langabetuei zuzenduta dago.

Lanerako prestakuntza ikastaro honetan, gehienez, 15 pertsona izango dira parte hartu ahal izango dutenak. Nahiz eta lanbidearekiko interesa duen edonorentzat izan, Arte Ederretan lizentziatu, dekoratzaile, arte aplikatuetan eta artistikoetan prestatuei ere zuzenduta dago.

Ikastaro honek bi zentzutan gaitu nahi



SARI GARRANTZITSUA ESKURATU BERRI DU YOLANDA ARRIETAK.

ditu langabetuak: alde batetik, obrako edozein margo-lan egin ahal izateko; eta bestetik, lan espezializatuak egiteko trompe l'oeil teknika menderatzeko.

Izen-ematea Usurbilgo Enplegu Bulegoan egin daiteke baina martxoaren 31a baino lehen.

Ikastaroaren helburu orokorra
Ikastaroa bukatu ondoren, ikasleak pintura lan desberdinak egiteko gai izango dira, eta guzti hori teknika piktoriko desberdinen ikasketa praktikoarekin osatuko da.

Betebeharrak

Edozein adineko emakumezko edo gizonzko langabetuei zuzendua.

Iraupena: apirilaren 24tik azaroaren 17ra (609 ordu).

Ordutegia: 8:30-13:30.

Lekua: Aginagako pintur tailerlean.

Hautaketa

Elkarrizketa pertsonala.

Informazioa, izen-ematea

Usurbilgo Udala, Enplegu Sustapen Saila
Jose Martin Sagardia Plaza z/g Usurbil
Telefonoa: 943 371951

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozolegia
LABE-GOXO

Zendoia
Kale Nagusia 10 • 943 37 40 71

Karra Elejalde aktorea, martxoaren 31n Sutegiko auditorioan

Puntako aktore baten bisita jasoko dugu martxoaren 31n. Karra Elejalde arabarrak bide luzea egin du zinema eta antzerki munduan. Duela gutxi martxan jarri zuen "La Kabra y Miss Yoes" antzezlanarekin hurbilduko da Elejalde Usurbila.

Karra Elejalde aktore, gidoilari eta zine zuzendariak Osvaldo Kaprunen psikiatrarengana joatea erabaki du. Antzerki hau orain 20 urte hasitako trilogiaren ("Etc, etc", "La Kabra tira al monte") azken zatia da.

Umorezko bakarriketa da eta aurreko antzerkiekiko lotura du: gizarte kritika, aberria, erlijioa eta norberaren barne bel-durrei buruzko gogoetak...

Psikodrama honetan, bertako protagonista bere egoera mentalari orden pixka bat jarri nahian dabil. Horretarako, Kaprunen doktorearengana joango da, eta bertan Sor Begoñaren laguntza paregabea izango du.

Gaixoari terapia hau jarriko diote: gaue-ro kruzero batean antzerkia egitea, modu horretara, hitz egin eta hitz eginez, deabru guztiak uxatuko dituelakoan.

Sarrerak jada salgai daude. Aldez aurretik, kiroldegian; eta egunean bertan, sarre-rarik geratuko balitz, Sutegiko takilan bertan.



KARRA ELEJALDE BAKARRIZKETAN
ARITUKO DA SUTEGIN.

Sarrerak kiroldegian salgai

Eguna: Martxoak 31, ostirala.

Ordua: 22:30ean.

Non: Sutegiko auditorioan.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Zuzendaria: José Antonio Ortega.

Aktorea: Karra Elejalde.

Textuak: Ortegalde eta Andreu Martín.

Sarrera aldez aurretik: 10 euro (kiroldegian).

Sarrera egunean bertan: 12 euro.

Hizkuntza: gazteleraz.

EHNA agiria eskuratzeko aukera

Martxoaren 25ean, EHNA tramitatzeko mahaia jarri zuen UHLk udaletzeko aterpean. Udalbiltzak Nazio Batuen Erakundeari bideratu nahi dion eskakizuna sinatzeko aukera ere izan zen, Euskal Herriko naziotasuna errespetatzeko eskakizun ofiziala, hain zuzen.



Batasunak deituriko elkarretaratzea

Orain berria, orain bakea lelopean, hainbat herritar bildu ziren martxoaren 24an frontoi atzean egin zen elkarretaratzean.

Apirilaren 1eko manifestazioa

Apirilaren 1ean manifestazio Anazionala egingo da Bilbon "Konponbide garaia da" lelopean. Autobusa aterako da Usurbildik 15:30ean. Autobuserako izen ematea, ohiko lekuetan.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 · 943 361 106

Uemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

GORRITI
edaritegia

kafe berezia!

SAN ESTEBAN KALEA, 8 · 943 362 770

LATXA
kateak denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Kalderas 2, Usurbild · Tel. 943 361 803

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Itxaropen aroa

Martxoaren 24an hasi zen ETAk emandako su-eten iraunkorra. Albiste honen harira, Usurbilgo ordezkari politikoen iritzia bildu ditugu. Webgunean, noaua.com helbidean, adierazpen osoak topatuko dituzue. Orriotan, ordea, pasarte esanguratsuenak jaso ditugu.

Usurbilgo Batasuna: "Pilota guztion teilatuan dago eta ez dago alderdikierientzat lekurik"

ETAren ekarpen hau eta bere sakoneko hedadura, gure herria zatitu eta zauritu egiten duten marko politikoen ageriko krisiaren testuinguruan kokatzen da. Aurrez aurre dugun aukera, iragane-ko eskema politikoen gainditzetik eta Euskal Herriaren geroa libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidearen errespetu arduratsutik soil-soilik ulertu daiteke.

Euskal herritarrek, eta bereziki ezker abertzalearen kideek, etorkizun demokratiko baten itxaropenari ateak ireki dizkiote. Batasunak berriz ere nabarmendu nahi du aukera hau kalean, instituzioetan, kartzelan, sasia... Ezker abertzaleko militanteen borroka eta lanari esker eraiki dela. Greba eta mobilizazio egun latzetan, ilegalizazioaren aroan beren botoekin babestu eta indartu gaituztenei singularraren lehen pertsonan doakie gure esker ona. Beraiei

dagokie une historiko honetan protagonista nagusi gisa sentitzea.

ETA erakundeak su-eten iraunkorra indarrean jartzeko ekimenak, azken denboran eman diren gertakariekin batera, Euskal Herrira bake justu, egonkor eta iraunkorra ekarriko duen prozesuaren itxaropen erreala elikatu eta indartzen du.

Batasunak Estatu espainiarrak eta frantziarrak beren erantzukizun propioak onartu eta bere gain hartzearen beharra nabarmentzen jarraitzen du. Koiuntura historiko honen aurrean gobernuek berehala eta modu eraikitzaile eta positibo batez erantzun behar dute.

Pilota guztion teilatuan dago eta ez dago aitzakia merke eta alderdikierientzat lekurik. Konponbideareko Mahaia martxan jartzeko beharrezkoak diren oinarriak, printzipioak eta konpromiso-

ak adostea da gure lehen zeregina. Guztion eskubide politiko eta zibilen aitortzan oinarrituko den Konponbideareko Mahaia eraikitzea da erronka.

Batasunak euskal herritarrei prozesu honetan erne eta aktibo egoteko deia egiten die. Zentzu honetan, datorren apirilaren 1eko manifestazioa Euskal Herriarentzat konponbide demokratikorako bultzadan erreferente politiko, sindikal eta herritarra bizkortzeko eta sendotzeko baliagarria izan behar du.

Gure azken hausnarketa euskal preso, iheslari eta beren senitartekoentzat da. Zuen amets eta gogoak gure-gureak dira, zuen sufrikarioak eta konponbidearen aldeko grina bezala. Bide eta helburu horretan ez dugu etsiko, ez dugu etsiko etxera ekarri arte, beren borroka-aren muinean dagoen proiektu politikoa bideragarri izango den Euskal Herrira ekarri arte.

Luisuari Ormaetxea alkatea, EA

"ETAk plazaratutako su-eten iraunkorra aukera historikoa da"

ETAk plazaratutako su-eten iraunkorra aukera historikoa da. Berri ona da, aspalditik euskal gizarteak eta usurbildarrok eskatzen genuena, eta itxaropenez betetzen gaituena. Dena den, zuhurrak izan behar dugu. 1998-99 urteetan bizitako prozesua ez dugu ahaztu eta orduan esfortzu guztia jarri genuenok jasan genuen frustrazioa ez zaigu ahaztu. Egoera berri honek euskal gatazka-aren konponbidea goi mailako politikan eta goi mailako politikarien esku uzten du. Agente politiko guztien ardurari dei egiten diet, baita usurbildarrei ere, herri honen errekontziliazio, normalizazio eta baketze egoerara iritsi gaitezen. Elkar errespetuan sakontzeak herritar guztien ongizate egoera hobetuko batera eramango gaitu, herri errekontziliazioak hamarkadetan ezagutu ez dugun herri-

dinamika eraikitzaile batera. Gatazkaren protagonista nagusiaren pauso berriak ematen jarraitu behar dute. ETAk, biolentziaren espresio guzti-guztietan uko egitea lehenik, ondoren armen suntsipena, eta azkenik, organizazio militar eta politiko bezala desagertzearaino. Estatuko botere ezberdinek ere prozesu berria bultzatu behar dute: espesio politika gizakiagoa eginez eta presoak bere familien etxetara gerturatu; partiduen legea baliogabetuz eta herri honetako aukera politiko ezberdinei hauteskunde demokratikoetan parte hartzeko aukera eskainiz. Partidu politikook, herri ordezkari legitimoak, une historiko honen garrantzia geureganatu behar dugu. Honekin esan nahi dut, ETAren izate eta jarduerak hamarkadetan oztopatu eta atzeratu

dituen, eta haren aurrekoak diren gai, arazo eta errebindikazio politikook lantzeko alderdi politikook mahai baten inguruan elkartu behar gara. Gizarte elkarbizitza eta errekontziliazioa sendotzeko dituen ekimenak eta bideak urratzen hasi behar gara: baloreen heziketa, elkarbizitza, adostasuna, barkamena, biolentzia eza, giza eskubideen nagusitasuna, biktimen sufrimenaren errekonozimendua, espesioaren humanizazioa, presoaren gizarteratzea. Guztion egitekoa da: herritarrok, herri-elkarteok eta nerea ere bai, usurbildar eta Alkate bezala. Bukatzeko. Berri ona da, zuhurtziaz hartu beharreko berria eta arduraz hartu behar dena. Itxaropenez eta ilusioz betetzen gaituena. Guztion inplikazioa eskatzen duena nahi dugun elkarbizitza baketsua lortu dezagun.

Lourdes Jauregiberri, EAJ-PNV
"ETAren erabakiaren aurrean,
gure poza azaldu nahi dugu"

Ekintza armatuen etenaldi iraunkorra abiatzeko ETAren erabakiaren aurrean, lehenengoz gure poza azaldu nahi dugu, eta ondoren esan beharrean gaude sartzen garen garai berri honetan, 2004ko abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrak onartu zuen egitasmoaren eduki aktiboak garatzen jardungo dugula: hau da, Euskal Herriaren eta bere erabakitzeko eskubidearen errekonozimendua.



Amaya Goyaran, PSE-EE
"Alderdikeriak alde batera
uzteko garaia da"

ETAk publikoki egindako su-eten iraunkorraren oharra aintzat hartzen du alderdi sozialistak. Berri ona, zuhurtasunez eta erantzukizunez hartu behar dena. Bake garai baten hasiera izan behar du eta ekintza terroristaren alderdi guztien behin-betiko amaieraren bermea izatea espero dugu; bai atentatuei dagokienez baita indarkeri, xantaia, mehatxu, kale borroka eta edozein modutan ETAren indarkeriarekin zerikusia duen edozein gertaerari dagokienez.

Gaur, gogoan izan nahi ditugu ETAren bortxakeriaren biktimak. Ez daitezela hildako gehiago egon, ezta mehatxatu gehiago ere.

Gaurkoa duintasuna eta demokraziaren handitasunaren eguna da. Herri eta Estatu ikuspegiz politika egiten hasteko garaia dugu. Bakea guztioi dagokigu eta alderdikeriak alde batera utzita, aurrera egin behar dugu, erantzukizunez.

Manuel Michelena, PP

"Demokraziaren arauetara
egokitu daitezela"

ETAren agiriaren ondorengo tes-tuinguruan, terroristek ez erailtzeko prezio politikoa eskatzen jarraitzen dute. Autodeterminazioa eta lurraldetasunarekin baldintzatuta dago su-etena, ordezkaritza politikoa bilakatzeko borondate sendoa adierazi du ETAk. Euskal gizartea terrorismoaz gogaituta dago eta bake-nahiak hitz engainagarrien bidez ameskeriak eragin ditzake. Baina beharrezkoa da engaiamenduan ez erortzea.

Nekaezinak izan behar dugu terrorismoa abandonatzea exijitzeko garaian, egindako okerra onartu dezala ETAk eta eragin dituen biktimentzat nolabaiteko erreparazioa eskatzen dugu.

Biolentzia eragiten dutenak demokraziaren arauetara egokitu daitezela exijitu nahi du Alderdi Popularrak, Gernikako Estatutuan eta 1978ko Konstituzioan jasoak dauden arauak.

Usurbilgo Aralar

"Orain, Espainiako gobernuari dagokio fitxa mugitzea"

Lehenik eta behin, Aralarrek bere poza adierazi nahi du ETAk eman duen urratsa oso garrantzitsua baita Euskal Herriak aspalditik bizi duen egoera desblokeatzeko. Zentzu horretan, erabaki ausarta bezain ezinbestekoa izan dela pentsatzen dugu.

Orain espainiar gobernuari dago-

kio fitxa mugitzea eta, ausardia berberaz, beste urrats batzuk ematen joatea, esate baterako, espetxe politika zein alderdien legearen alorrean; hasteko, euskal presoak hurbilduz.

Gainera, hemendik aurrera, aberztaleen arteko elkarlanerako aukera berriak ireki daitezke autodeterminaziorako eskubidea gauzatzearen

alde. Denoi egokituko zaigu borondate politikoa izatea, ahalegin horretan aurrerapausoak emateko. Gu behintzat elkarlanerako prest gaude.

Bide batez, aukera hau aprobetxatu nahi dugu orain dela gutxi espetxetik atera eta trantze gogorra pasatzen ari den Panari gure animoak bidaltzeko. Eutsi goiari!



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
 Aitzearra kalea, 1
 20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
 Faxa: 943 36 62 92

Kalko, kopisteria
FOTOKOPIAK
 zuri-beltza · koloretan

BANDERA
SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA

LH 5. mailakoak Adarran izan gara

Azkenean egin genuen 5. mailako neska-mutilak ahain gogotsu itxaroten ari ginen Adarrarako irteera. Martxoak 17 zituen eta ostirala zen. Astean zehar adi-adi egon ginen ea komunikabideetan zer esaten zuten; bagenekien eguraldi txarra iragarri ezkeru Cristinak eta Iñaxiok, gure tutoreak, ibilalditxo atzeratu egingo zutela.

9:00etan kiroldegitik abiatu ginen Urnietara. Andoaingo bidea hartu eta ezkerrean joz, Besabirako bidea hartu eta han ginen mendiari gogor egiteko asmoz. Ondo prestaturik joan ginen: motxila, kantinplora, iparrorratza, prismetikoak, argazki-kamera, bastoia...

Egurrezko habiak jartzen aritu ginen

Bideari lasai-lasai ekin genion; txangoaren helburuetako bat naturaz gozatzea eta elkarrekiko harremanak sendotzea baitzen. Egurrezko habiak jartzen ibili ginen bidean zehar, eta esfortzua- ren ondorioz, gosea ere piztu zitzaigun eta hamaiketako egin

genuen zelai atsegin batean. Bidean kantinplorak bete ondoren, tontorrerako bideari ekin genion.

Tontorrean paisaiatz gozatu genuen... Haiek ziren "bistak": Donostia, Arano, Ernio, Andatza, Buruntza, Aralar, Mendizorrotz, eta herri pilo bat.

Bazkaltzera jaitsi ginen, nahiko berandu bai, eta borda baten inguruan berritu genituen gure indarrak. Han pixka bat jolastu ondoren, autobusa hartzera abiatu ginen maldaz behera Besabirako aparkalekura.

Gauza interesgarriak ikusi genituen

Ibilaldian zehar gauza interesgarriak ikusi genituen: pinuaren prozesionaria, iturburua, Etenetako zutarria, harrespilak, elurzuloa, pottokak, betizuak, ardiak... Zapaburuak ere ekarri genituen gelan jartzeko.

16:30ean ikastolara itzuli ginen eta zenbaitek matrail gorrituak ekarri zituen, azkenean, eguraldia ondo portatu baitzen.

Udarregiko 5. mailakoak



IBILBIDEAN ZEHAR GAUZA INTERESGARRIAK IKUSI GENITUEN.



TXANGOAREN HELBURUETAKO BAT NATURAZ GOZATZEA ETA ELKARREKIKO HARREMANAK SENDOTZEA ZEN.

Udarregi Mendi Taldea, Artikutzan

Udarregi Ikastolako Mendi Taldeak irteera egin zuen aurreko igandean. Kotxez Oiartzuna joan ondoren, oinezko bideari ekin eta Bianditz mendira igo ziren, borda batean hamaiketako jan eta ondoren Artikutza ondoko pagadian zehar ibili ziren. Haizea indartsu ibili bazen ere, eguraldi epela izan zuten eta gustora bueltatu ziren.

Hurrengo irteera apirilaren 30ean izango da baina ibilbidea aurrerago zehaztuko da.



Gipuzkoako txirrindulari taldearekin Britainiara

Jokin Iartza 18 urteko txirrindulari gazteak Britainiako nazioarteko proba batean parte hartuko du Gipuzkoako selekzioarekin igande honetan. Andoaingo Txirrindulari Eskola taldeko partaide da duela zortzi urte inguru alebin mailan txirrindularitzan hasi zenetik eta martxoaren 19an Azpeitian irabazi zuen jubenil mailan bere lehen lasterketa. Ea ba aurrerantzean ere garaipenak lortzen jarraitzen duen.

NOAUA! Gipuzkoako selekzioarekin Britainia aldera joateko hautatua izan zara. Espero al zenuen?

Jon Iartza. Gipuzkoako selekzioarako hautatua izatea ez nuen espero oraindik. Denboraldia aurrera joan ahala agian bai, baina orain ez. Ikasketak direla eta ezin izan dut askorik entrenatu eta ustekabean etorri zait deia. Duela aste batzuk Azpeitiko lasterketa irabazi nuen ihesaldi baten ondoren eta horregatik izan daiteke agian. Hala ere, ondo hasi dut denboraldia, emaitza onekin eta horregatik izango dela uste dut. Orain arte bost lasterketetan parte hartu dut eta batean ez ezik beste guztietan hamar aurrenekoetan sailkatu naiz.

N. Berri pozgarria izango zen ezta?

J. I. Gustura nago Britainiako lasterketa honetan parte hartzeko hautatua izan naizelako. Frantziako txirrindulariez gain junior mailako nazioarteko beste txirrindulariak ere izango dira bertan. Apirilaren 2an izango da. Goizez 6,4 kilometroko erlojupekoa izango dugu eta arratsaldean 117 kilometroko lasterketa. 6 txirrindulari goaz Gipuzkoatik eta parte hartzeko gogoarekin nago. Horrelako aukerak gutxitan izaten dira eta aprobetxatu beharra dago.

N. Eta ondoren, apirilaren 9an, Paris-Roubaix lasterketan izango al zara?

J. I. Ez dakit ziur joango naizen ala ez, baina aukerak badituzte. Britainiako lasterketa baino garrantzitsuagoa da. Jubenilak profesionalen aurretik irteten dira eta ondoren hauek pasatzen dira bertatik, izugarria izan behar du. 120-130 kilometroko ibilbidea izateaz gain, 30 kilometrotan galtzadarrian ibili behar da.



JOKIN IARTZA, ETORKIZUN HANDIKO TXIRRINDULARIA.

N. Txirrindularitzan lehenengo garaipena izan al zen Azpeitikoa?

J. I. Junior mailan bai. Garai batean infantil mailako bigarren urtean bi lasterketa irabazi nituen, baina ondoren kadete mailan, nahiz iazko jubeniletako lehen urtean irabazi gabe nengoen. Beraz, azken urteetan lortu dudana lehenengo garaipena izan dela esan daiteke.

N. Denboraldi hasiera ona izan duzula esan duzu. Zer aldatu da iaztik?

J. I. Aurten prestatzaile fisiko batekin nabil. Ondo ibiltzen diren txirrindulari gehienek prestatzaileak dituzte, eta nik aurten proba egitea erabaki nuen. Agian horregatik nabil denboraldi hasiera honetan iaz baino hobeto. Horrez gain, aurten jubeniletan bigarren urtea dut, eta horrek ere badu zerikusirik.

N. Ikasketak eta txirrindularitza bateratzea ez da erraza izango.

J. I. Ez da batere erraza. Batxilergoko bigarren urtea egiten ari naiz eta horrez gain unibertsitaterako atariko azterketa bat ere egin berri dut. Horrez gain gida-baimena ere ateratzen ari naiz. Azkenean dena batera etorri zait eta txirrindularitza batekin bateratzea ez da erraza. Hala ere, orain arteko lasterketetan emaitzak onak izan direnez horrela jarrai dezala guztiak. Azpeitian, adibidez, garaipena lortzea ez nuen espero. Zortea ere izan nuen. Ihesaldi batean sartu ondoren Azkaraten gora alde egin nuen beste batekin batera

eta azken txanpan nik irabazi nuen. Pozgarria izan zen oso.

N. Aurten jubenil mailan azken urtea duzu. Datorren urtean afizionatu mailan jarraitzeko asmorik bai?

J. I. Datorren urtean unibertsitatean hasiko naiz eta ziur estuago ibiliko naizela ikasketekin. Orain lanpetuta banabil datorren denboraldian gehiago. Ez dakit zer aterako den, baina hasteko asmoa behintzat badut. Hala ere datorren urtean ezingo dut Andoaingo Txirrindularitza Eskolan jarraitu eta talde berria aurkitu beharko dut.

N. Txirrindulari modura nola definituko zinateke?

J. I. Erregularra naiz, txirrindulari konpletoa naizela esan daiteke. Igotzen, erlojupekoan, ordekan... denean moldatzen naiz nahikoa ondo. Batzuk ni baino hobek dira aldapa gora, besteak erlojupekoan, baina ni erregularra naiz. Agian erresistentzian nabarmenduko nintzateke, lasterketa luzeetan ondo ibiltzen naizen txirrindularia bainaiz. Haimar Zubeldiaren antzekoa naizela esango nuke, baina txarrean.

N. Nor da zure txirrindularirik gogokoena?

J. I. Haimar Zubeldia.

Aholkua !!

Atzerriko ikastaroak aurretik ondo planifikatu

Udan, gero eta familia gehiagok bidaltzen dituzte seme-alabak atzerrira ikastera. Esperientziarik gehienak onak izaten dira. Hala ere, batzuetan gurasoak haserre agertzen dira. Arazorik ez izateko, hainbat gauza hartu behar dira kontuan aldeztu aurretik.

Ikastaroa hasi baino bi edo hiru hilabete lehenago hasi behar da informazioa jasotzen. Horrelako bidaiak eskaintzen dituzten enpresek informazio-orriak atera ohi dituzte. Nahi dugun informazioa bertan aurkituko dugu. Eskatu orri horiek eta gorde bidaiak bukatu arte.

Bizitokiari dagokionez, bi aukera daude: bata, ikaslea familia batekin bizitzea; eta bestea, ikasle-egoitza batera joatea. Seme-alabak familia batera bidaltzea erabakitzen bada, eskatu familiari buruzko informazioa: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, eta abar. Eskatu, baita ere, beste datu batzuk, esaterako: esperientzia, etxebizitza mota...

Beste gai garrantzitsu bat ikaslearen aseguru da. Aseguru berezi eta zabal kontratatu behar da, bat ikasle bakoitzeko. Ospitaleko gastuak, ekipajea, etxera itzultzea eta abar sartzen dira aseguruaren barruan.

Bidaia aukeratu eta gero, enpresa ea



legearen arabera antolatuta dagoen egiaztatatu behar da. Atzerrian ze azpiegitura daukan ere bai. Dena ondo badago, eskatu idatzizko kontratua. Bidaiari buruzko zehaztasun guztiak jaso ohi dira bertan.

Eguneko goardiako farmaziak

Martxoak 30, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 31, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 1, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 2, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 3, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 4, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 5, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Apirilak 6, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 7, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Apirilak 8, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 9, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEAGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/9:30(T)/13:15(T)/
14:35*(T)/19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* /9:00/ 12:45(T)/
13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/
21:00 (T)

* Eskola egunetan. T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40		09.05	09.25
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiara

Harremnetarako: 902.54.32.10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05	09.15	09.30
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiariak dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremnetarako: 902.54.32.10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10:03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	23.09

* Asteagunetan bakarrik

Ez Da Usurbilen geratzen

Harremnetarako: 902.54.32.10 / www.euskotren.es

Agenda !!

Martxoak 31, ostirala

- Udalak langabetuentzat antolatu duen pintura ikastaroan izena emateko azken eguna. 943 37 19 51 (Enplegu Bulegoa).

- 22:30ean Sutegin, "La Kabra y Miss Yoes". Karra Elejalde aktorearen eskutik. Sarrera aldez aurretik salgai kiroldegian.

Apirilak 1, larunbata

- "Konponbide garaia da" manifestazioa Bilbon. Usurbildik autobusa 15:30ean aterako da. Izen-ematea, ohiko tokietan.

Apirilak 5, asteazkena

Argazki digitala eta henna ikastaroetan izena emateko azken eguna. Informazio gehiago NOAUA!n.

Apirilak 5, asteazkena

Anari, Sutegin. 22:30ean. Sarrerak salgai Bentan, Txirristran eta NOAUA!n.

Zumarte Abesbatza Lezon

Zumarte Abesbatzako kide batzuk Lezon ospatuko den IV Akordeoi Topaketan hartuko dute parte apirilaren 2an.

Topaketa honetan 30 musika eskoletako ikasleak hartuko dute parte, 400 eskusoinujole eta 300 abeslari elkartuko dira guztira.

Partehartzaile guztiak entseatu eta hamaiketako egin ondoren topaketa honi 11:30ean kalejira batekin emango zaio hasiera, ondoren "Gurutze Santuaren Plazan Kantari" ekitaldia egingo da eta 13:00ean Bekoerrotako Kiroldegian kontzertua eskaini ondoren, 14:00etan topaketari amaiera emango zaio.

Musikaren txokoa !!



"Hondartzan" Makalarekin

Makalaren "Hondartzan" lanak reggae, ska, funk, latin eta beste hainbat doinu nahasten ditu. Abestiak entzun eta gorputzari astindu ederrak emateko disko aproposa da, dantzarako soinu bikainak nahasten dituelako. "Hondartzan" izenburupeko diskoan 22 musikaririk parte hartu dute,



eta DJ moduan badabil ere, udaberriko talde formatuan itzultzeko asmoa du.

Mikel Unzurrunzaga Schmitz da Makalaren benetako izena. Bere curriculum oparoari begiratu azkar bat emanez gero, honatx bere jarduerak: Zarautzko baxu jole, abeslari, ekoizle, kontzertu antolatzaile eta batez ere, disko jartzailea, 8 urte luze darama Donostiako Etxekalte klubean hilabetero musika ipintzen.

Egin kontu !!

Ostiral honetan, euskal presoak Euskal Herriratzeko elkarretaratzea

Ostiralean, martxoak 31, euskal presoak Euskal Herriratzeko eta bere estatus politikoa aitortzeko elkarretaratzea egingo da herriko pilotalekuaren atzean.

Etxeretek hileko azken ostiralean antolatzen duen ekitaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da.



I n t e r n e t n e z r e t u n l k

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

K n k l

- L n t z r
- G z n z k n r r p
l l u r n t z k
- F i x r k h r
t z r u n k

Zubiaurrenea, 3 33 17 7

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Unpainsdegia eta Solarium-a

Loli Lizarralde

Estetika Zentroa Herche Caseresen eskutik.

© 943 361 971
Zubiuurrenea, 5 B

L'OREAL

produktuak erabiltzen ditugu

ERRAZKIN

IGELTSERITZA OROKORRA

kale Nagusia, 1

Tel./Faxo: 943 365 125

Mobilak: 629 420 565 - 649 435 470

MIKEL IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

BOIZ ARGI ETXEA 37 KALEZAR

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile alokatzen da. Bi logela dauzka. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, terraza eta jardina. Pazkoa, aste buruak eta udarako. Merkea. Camping La Civelle 3***. 685 721652 edo 665 734009.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamiento ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko

zerbaitetan. 652 757 495.

- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- 4 urteko umea zaintzeko norbait behar dugu. Goizean ikastolara eramateko eta eguardirako. Gida baimena eduki behar du. 675007048
- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44. Orduetgia: astelehenera, 13:00etik 16:30era. Asteartetik ostegunera, 13:00etik 16:00etara. Ostiralean, 13:00etik 16:00etara eta 20:00etatik 00:00etara. Larunbatean, 07:30etik 12:30era.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 telefonora deitu (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapora@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Zubietatik Andatarako bidean hiru giltza topatu ditugu. Galdu dituenak jakin dezala udaltzaingoan utzi ditugula.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak morenaza!

Apirilaren 4an hikin goatuko gaitun Naiara, 23 beteko baititun. Hainbeste lan itiai utzi ta ea trago batea noiz gonbiatzen gaitun. Hire superkuadrila.



Hi beti aldapan

gora...aldapan behera...

Apirilaren 1ean ez daukak pedalai ematen utzi beharrik, bizikletako kantinplo-
ran txanpain pixkat jartze-
akin nahikua izango dek eta. Baina kontuz kurbetan.... **Zorionak Haimar!**



Zorionak Edurne!

Apirilaren 1ean egingo dituz urteak eta ez gara zutaz ahaztu. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Aitor! Apirilaren 4a ere segituan etorriko da eta zutaz ere akordatu gara. Muxu handi bat eta besarkada bero bat.



Oiardoko delfinak apirilaren 4an urteak betetzen ditu. Beti bezain lirain jarraitzen du. **Zorionak!**



HILDAKOAK

Jexux Goenaga Iribar
Martxoaren 23an hil zen 54 urte zituela. Kaleberri.



Juan Miguel Makazaga Eiguren. Martxoaren 26an hil zen 56 urte zituela.



Jesusa Amundarain San Sebastian
Martxoaren 25ean hil zen 66 urte zituela. Arsuaga kalea.

JAIOTZAK

- **June Albisu Sarasola**
Martxoaren 21ean.

EUSKAL OKELA

UT ZE

ETXEK

h k k l , 4

T H 433 6742

T

ITZU

F OT K

ZKI K

OKTU K

K NOEL TU K

M N CENILL

k r n t u r i

t l l n k

r z t z - l i k

n t u r - l i k r h r

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL

MOBILA: 629 46 09 66

Industri eta Iragarki

SERIGRAFIA

TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954

UBALDEA PDL.35-2-USBIL

7 amesten lempimaria



Lehiaketa

"Munduko jolasak" CD-romean,
bost kontinenteetako 100 jolasetik gora
bildu dira. Gehienak taldean egiteko jolasak
dira, 3-16 urte bitarteko haur eta
gaztetxoentzat egokiak direnak. Txatxilipurdi
taldeak osatu duen CD hau eskuratu nahi
baduzu bidali e-posta bat erredakzioa@noaua.com
helbidera. Zozketa apirilaren 8an egingo dugu.
Animo eta zorte on!



Aurreko
lehiaketaren
irabazlea
JON ZUBIARRAIN

Bidali e-maila erredakzioa@noaua.com.
Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tartea

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

EGIN TXOTX!! sagardotegi garaiari

Txotxetik sagardoa
zeraitu usadioari



AJALDE
BERRI

Urtarrilaren 15tik irekita!

Santuenea, Tel.: 943 365 051 - Mobilak: 670 027 751

LARRE-GAIN

TOLDE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera txotx garaiari
(Asteleheneran Itxita)



Larre-Gain Baserria - Ereñozu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 - Mugik: 616 287 867

ASTIAZARAN SAGARDOTEGIA IRUIN

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.



Urtarrilaren 9-an
irekiko dugu
tel.: 943 36 12 29

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.



Oztaran Bailara • URNEIA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

Kale Zahar Anzua, 38
20070 USUREIL
GIPUZKOA
Tel.: 943 362 228
www.sidrassazar.com

OTEGI

Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik



Solla onoa
Baserrin
Zabaleta auzoa
Lasarte-Oria
Tel.: 943 365 029

